

- Baliabide fisikoak: App-ean lan egingo dugun lekua institutua edo gure etxeak izango dira. Baita app-a diseinatzeko edo gure bezeroei arreta emateko erabiliko genituzkeen ordenagailuak eta telefonoak ere.
- Giza baliabideak: Era askotako langileak izango genituzke. Lehenik eta behin, erabaki dugu Jonen aita izango dela gure teknikaria, bera arduratuko da app-a garatzeaz eta jaulkitzeaz, komunikazioetako ingeniaria delako eta informatika ingeniartzako masterra delako. Gainera, gu izango ginateke bideokonferentzia edo solasaldi bakoitzeko moderatzaileak, hitz egiten ari diren profesionali bidaltzen dizkieten galderak entzunez. Horretaz ari garela, aplikaziora hitz egitera datozen pertsonak ere kontratatu beharko genituzke, nahiz eta horietako batzuk borondatez etorriko diren. Pertsona hauek formakuntza profesional bat izan beharko zuten. Pertsona hauek biilatzeko unibertsitateekin kontaktuan jarriko gara irakasle edo ikasleak lortzeko.
- App ren diseinuaz Nagoreren ama arduratuko zen, aldizkari diseinatzailea delako eta.
- Finantza baliabideak: Aplikazioa martxan jartzeko geure aurrezkiak eta Julio Fernandez inbertitzaileak emango lizkigukeen 200 euroak erabiliko genituzke. Bigarrenez, gobernuaren laguntza bat eskatzen saiatuko ginateke, Goberku hezkuntza sailari 1.000 euro eskatuko genioke eta AdMob bidez app-ean jarriko genituzkeen iragarkiek ere dirua emango ligukete.